



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2025-11-02

BILERA ZENBAKIA: 10

ORDUA ETA LEKUA: 17:30 Itsasondoko udala

PARTEHARTZAILEAK: Elena (Udal zinegotzia) , Maider, Erkuden eta Bihotza (Gizarte Langilea)


EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. **LIBURU AZOKAREN prestaketa:** Data eguna zehaztuta , Azaroak 21, arratsaldeko 17:00 etatik 19:00etara. Prestaketarako arduradun Elena eta laguntzaileak eskatuko dira Ongizate sarean. Udalean mahaiak eta musika ekipoaren eskaera egin behar da. Jabiri liburuak gordetzeko kaxak lortzea eskatuko zaio eta behin azoka bukatuta gerakinak udal biltegian gordeko dira kaxetan , ondoren Gizarte Zerbitzuak erabiltzen dituzten familien haurrei eta eskolari eskeini beharrezko etekina ateratzeko.
2. **AZAROAK 25 Elkartaratzea:** Elkartaratzearen deialdia egin Nereari pantailetan eta sare sozialetan partekatzeko. Elen izango da egunean bertan egin beharrekoen arduradun; pankarta hartu, jetsi elkartaratze ordurako kalera, ondoren jaso eta udaletxeko balkoian ipini Daneli eskatutako bridekin.
3. **2026RAKO GIZARTE-ONGIZATE AURREKONTUAK:** Hurrengo batzorderako aurrekontuen partidak zehaztuko ditugu, gizarte zerbitzuetako laguntzak bere horretan aldaketa haundigirik izango ez badituzte ere, jarraipen bat eskeiniz, gizarte ongizate lantaldetik bultzatzen diren ekintza eta lanketek izango duten garapenak zein kostua izan dezakeen zehaztuko dugu, baita. Guztia izango delarik Gizarte Ongizate taldeak 2026urterako planteatuko duen lanketa osatu eta bateratuaren kostua.
4. **ETXEBIZITZA GAIA:** Maddi, Jone eta Erkudenek joan den urriaren 6an hirigintzako bileran parte hartu zuten Itsasondon etxebizitza berriak eraikitze auzeraz hitz egiteko. Bilera hartan jasotako informazioa bildu eta aukera errealean inguruan honako hau azaldu dute:

“ Mikel arkitektoak Itsasondon etxebizitza berriak eraikitze auzeraz dauden aukera urbanistikoak azaldu zituen:

- a) Beko Kaleko partzela
 - Aukera nagusia eta egokiena dela adierazi zuen.
 - Bi bloketan banatu liteke, fase desberdinetan eraikitze auzerarekin.



-Lehenengo pausoa: Beko Kale beheko eremua “area degradada” gisa izendatu daitekeen aztertzea.

- Fatxadak, kalea eta ingurua egokitu beharko lirateke etxebizitzak planteatu aurretik.

-HiritikAt-ei kontsulta egin beharko zaio.

-Proiektua gauzatuz gero, Beko Kaleko urbanizazioa ere egingo/berrituko litzateke.

- Urbanistikoki bideragarria eta estrategikoa da.

b) Goiko Kaleko udal baratzak

- Gaur egun baratze gisa erabiltzen diren lurak dira.

- Orografiaren ondorioz irisgarritasun arazoak izango lirateke, eta lan gehiago eskatuko luke.

→ Momentuz baztertutako aukera.

a) Parkingaren eta parkearen arteko lursaila

- Administratiboki “azkar eraikitzeko” modukoa litzateke.

- Hala ere, hirigintza ikuspegitik ez da aukera egokitzat hartzen.

b) Ertotxeriko etxebizitza (Obispadua)

- Obispaduak eskaintza egin dio udalari, baina baldintzak argitu gabe daude.

- Ez da une honetako aukera nagusi gisa aztertzen.

5. BESTE GAI BATZUK ETXEBIZITZAREKIN ZERIKUSIA DUTENAK:

- Herriarren etxebizitza beharrak ezagutzeko, etxez etxe inkesta pasatzea interesgarritzat jo zen, eta emaitzen arabera erabakiko da zein aukera den egokiena. Erabakia udal zinegotzien mahaiaren onespenearekin hartu beharko da.
- Udalak, behar handiena duten portaletan igogailuak jartzeko bideragarritasuna aztertuko du azaroa–abendua–urtarrila bitartean. Emaitzak otsailean izango dira prest.
- Abenduan 2 informazio bilera irekia egingo da.
- Abenduan 9 hirigintza bilera egingo dira.

	NOIZKO?	ZEINEK?
Liburu azoka arduradun	Azaroak 21	Elena
Azaroak 25 Elkartaratzea arduradun	Azaroak 25	Elena
Liburu azokaren gerakinen kudeaketa	Gabonen aurretik	Bihotza
Irisgarritasuna obetzeko igogailuen proiektuen jarriapena	Azaroa-Urtarrila	Erkuden, Jone eta Maddi

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera Abenduak 02, 17:30etan, Udaletxeko bigarren solairuko bilera gelan.

